



OHIO EUSKAL ARRANTZA ONTZITIK IKUSIA

Helburuak

- Baxurako arrantza selektiboaren usadiozko metodoen balioaren aitortza zabaltzea.
- Euskadiko itsas ondarearen kontserbazioa eta berriztatzea bultzatzea.
- Gure itsas ondare kulturalaren eta itsasertzak duen aberastasun naturalaren berri ematea.
- Gure arrantzaleen bizimodua ezagutzea, jaten ditugun arrainak hobeto baloratzeko.
- Ipar eta hegoaldeko euskal arrantza ohituren arteko harreman estuaz jabetzea

Partaideak

ITSAS GELA

Irabazi asmorik gabeko ITSAS GELA Elkartearen sorrera, Pasaian eman zen 2001. urtean, itsasoarekiko grina konpartitzen zuten pasaitar kuadrila baten eskutik. Helburu nagusia, itsas ondareak eskaintzen dituen hainbat aukera ezagutzera ematea, beti ere ingurunea eta bertako jendearekiko, iraupen eta errespetuaren ikuspegitik hartuta.

Bertako kideek, beren jaioterriak berrerraketa baten premia zuela ikusirik, beraientzat bertakoa zen elementu esanguratsuena oinarritzat hartuz, itsasoa, zerbait egitea pentsatu zuten. 2003. urtean ITSAS GELAK MATER arrantza ontzia eskuratu zuen, Kantauriko atunontzi tradizionala, jatorriz Getariarra, 33 metroko eslora eta 10 urteko lanaren bildumarekin Kantauri itsasoan zehar. Eraldaketa prozesu baten ondoren, 2005. urtean, MATER, estatu espainiar osoan aurkituko den museoan bilakatutako lehen arrantza ontzia izango da. Proiektu honetan, gaur egun galtzeaz dauden arrantza arte mota tradizionalen tresneria, hainbat ikus-entzunezko material, bibliografiko, dibulgaziozko eta pedagogiko bildu eta itsasontziarekin batera erakusketa iraunkor batean bilakatu zen guztia.

Honela erakusketarekin osagarria izango den, publiko orokorrari eta bereziki eskola garaian dauden haur eta gazteei zuzendutako hezkuntza programa zabal bat sortzen da.

Informazio gehiago: www.itsasgela.org

ITSAS BEGIA

Irabazi asmorik gabeko ITSAS BEGIA elkarteak borondate oneko 130 kide dauzka gaur egun. Elkartearen helburuak honako hauek dira: euskal itsas ondarearen bilketa, zaintza eta balorapena; euskal itsas ondare eta kultura kontserbatorio baten sortzean parte hartzea. Elkarteak "Hezkuntza Nazionala" eta "Gazteria eta Kirolak" labelak jaso ditu.

Gure elkartearen jarduerak hiru ataletan banatuak dira:

- **maketak egiteko tailerra:** elkarteko bi kidek itsasontzi-maketak nola egiten diren erakusten dute; hamabost bat ikasle helduk parte hartzen dute tailer horretan. Elkarteak hainbat maketa dauzka, horietarik bat Baionako Euskal Museoan erakutsia baita.

- **nabigazioa:** gure ontzidia hiru itsasontziz osatua da: « Itsas begia » battela (1986), « Louis Auguste » ontzixka eta « BROKOA » txalupa handia, 13.80 metro luze dena. XIX. mendearen amaierako txalupa bizkaitarraren erreplika hori 1991 eraiki genuen, Donostiako Akuarioak emandako planoen arabera. Brokoa « ondare interes handiko itsasontzi » gisa sailkatua izan da, Pariseko Itsas Ondarearen Fundazioak emandako « BIP » labelari esker.



- **ondarea:** bilketa, ikerketa eta partaidetza lanak eramaten ditugu euskal itsasbazerrean museo-espazio iraunkor bat sortzeko asmoz.

Gure partaideak: 30 urtez, ondoko erakundeekin aritu izan gara lankidetzan: Akitania Eskualdeko Kultura Zuzendaritza, Baionako Euskal Museoa, Biarritzeko Itsas Museoa, Baionako Historia Naturalaren Museoa, Baionako Merkataritza Ganbara, Euskal Kultur Erakundea, Hendaia Ingurumen aldeko Ekimen Zentro Iraunkorra, Donostiako Untzi Museoa, Bilboko Euskal Museoa, La Rochelleko Itsas Museoa eta, duela gutxi, Bordeleko Akitaniako Museoa. Euskadiko itsas ondarearen eragile gehienekin ere lanean ari gara. Ekintza pedagogikoak eramaten ditugu PEP 64, ikastetxe publiko zein pribatu, bai eta hainbat erakunde pribaturekin ere.

Gure jarduera batzuk ikus daitezke gure webgunean: www.itsas-begia.eu, bai eta gure blogean ere: www.itsas-begia.com

Deskribapena

Proiektu honek euskal herriko arrantza flotak lan egiten duen era azaldu nahi du ikasleei ipar eta hegoaldean itsas ondarean lan egiten duten bi erakundeen eskutik. Horretarako MATER euskal arrainontzi tradizionala izandako itsasontzia portuz portu mugituko da iparraldeko eskoletako ikasleak euskal arrantza ondarean murgiltzeko.

Helburu hau lortzeko jarduera programa bat burutu da zeina eskola ezberdineei eskainiko den. Programa honetan, bi atal egongo dira ikasleei zuzendutakoak, batetik, eskolan bertan egiten den ITSAS BEGIA elkarteak arrantzari buruzko animazioak egingo ditu; eta bestetik, MATER itsasontzian zeina eskola kokatuko herriko portuan egongo den.

Programak eduki hauek izango ditu:

- ITSAS BEGIA atala:
 - MATER arrantza-ontziaren bisitarako prestakuntza: irakasleen hautuaren arabera, arrantza edo zurezko ontzigintzari buruzko gai baten aurkezpena. Material pedagogikoaren erabilera (panelak, bideoak, fitxak, gauzak...). Itsas mundu eta itsasontzi batean eramandako bizimoduari buruzko sentsibilizazioa.
- ITSAS GELA atala:
 - Bisita didaktikoa MATER itsasontzira
 - o **MATER Euskal Arrainontzi Tradizionala**

Ezagutu itzazu arrantzaren sekretuak: ingurumena errespetatzen duten arrantza tresnak, arrantzalearen bizitza-eritmo berezia, ontziaren bitxitasunak...

- Arrantza Tailerrak:
- o **Arrainen mundua** (6-8 urte)

Arrainak egiten duen ibilbidea aztertuko dugu arrantzaleetatik hasita gure mahaira etorri arte. Arrain mota nagusiak ezberdintzen ikasiko ditugu eta arrain lonjara bisita egingo dugu.

- o **Arrantzan ikasten** (> 8 urte)

Arrantzale arduratsu bat izateko beharko dugun guztia ikasiko dugu: arrantza motak, arrainen gutxieneko neurriak, arrantza aparailu baten prestakuntza eta zortea badugu baita arrantzatu ere!

- o **Arrantza industria** (>13 urte)

Arrantza tekniken jasagarritasuna eta gehiegizko ustiapenari buruzko egoera aztertuko dugu: espezie gakoak, salmenta arrain lonjan eta merkaturaketa.